

getxoBerri

/ Nabarmenezkoak

- > Maximo Aguirre eta kale Nagusia, ingurune gizatiarra, seguruagoa eta irisgarriagoa (2. or.)
- > 400.000 euro inguru gizarte-arloko elkarteekin hitzarmenak egiteko (4. or.)
- > Milioi bat euro Faturako belar naturaleko futbol zelaia hobetzeko (5. or.)



*Muxikebarrik 75 ikuskizun hartuko ditu urte amaierara arte (3. or.)

Getxo Kulturaren tailerrak.

Aurrematrikula zabalik. Informazioa Kultur Etxetan eta online: <https://labur.eus/dg1vbixf>

Antzetzutako bisitak. Hilak 6 eta 13 (larunbata), 11:00h, Ereagako Turismo Bulegotik, "Portu Zaharra bere sustraietatik". 6€ (12 urtetik beherakoak doan)

A-
GENDA



Xabier Zeberioaren eta Andrés Isasi Musika Eskolaren "Pause" proiektuarekin hasiko da Getxo Folk jaialdia

Xabier Zeberio musikari eta konpositore tolosarraren eta Andrés Isasi Musika Eskolaren hari-orkestraren emanaldiarekin hasiko da Getxo Folk jaialdia, eta irailaren 10etik 14ra bitartean izango da herriko hainbat agertokitan. Asteazkenean, hilak 10, igoko dira agertokira, *Pause* Zeberioaren bakarkako lehen lana aurkeztera. Proiektu intimista, lasaia eta sakona da, eta primeran egokitzen da harizko instrumentuetara. Ordaindu beharreko lehen kontzertu

tzatua izango da eta sarreraren prezioa 8 eurokoa da. Ostegunean, hilak 11, Estrella Morente abeslariaren txanda izango da. Granadakoa flamenko garaikidearen ahots enblematikoenetako bat da, bere arteagatik, ezagutza sakonagatik eta berrikuntzarako gaitasunagatik ezaguna. Sarrerak 25 euro balio du. Capercaillie talde eskoziarra izango da protagonista ostiralean, hilak 12. Musika zelta garaikidearen funtsezko erreferentia, erreperto-

rio tradizional gaelikoa soinu-baliabide modernoekin eta ekoizpen zainduarekin (18€) uztartzeko duen gaitasunagatik nabarmentzen da. Muxikebarrin ordaindu beharreko azken bi kontzertuak, larunbatean eta igandean, hilaren 13an eta 14an, Carminho abeslari portugaldarrarenak (18€) eta Benito Lertxundiren omenaldiarenak (sarrerak agortuta) izango dira. Kontzertu hauek guztiak 20:00etan hasiko dira.

Doako kontzertuak

Getxo Folk jaialdiak kontzertuak eta doako ikuskizunak eskainiko ditu herriko hainbat tokitan. Ostiralean, hilak 12, Areetako Geltokiko plazan La West Bluegrass Band (13:00) eta Erromintxelak (18:30) arituko dira. Hilaren 13an, larunbatean, Hutsun Txalaparta (13:00) eta Ene Kantak (18:30) izango dira, eta 14an, igandean, Sensei Music Ensemble (13:00) eta Deira Band (18:30). Plazako anfiteatroan, larunbat eta igandean, ludoteka musikala izango da eta Black Raven Pipe Band irlandar gaita-bandaren emanaldia ere ez da faltako herriko kaleetan zehar.

Kataluniako eskarmentu handiko hiru talde arituko dira Habanera Jaialdian

Hamarkada askotako esperientzia duten Kataluniako hiru talderen ahotsak, gitarrak eta akordeoiak izango dira protagonista asteburu honetan Muxikebarrin egingo den Habanera jaialdiaren 40. edizioan. Kontzertuak 20:00etan izango dira eta sarreraren prezioa 3 eurokoa izango da (7 euro abonua hiru egunetarako).

Ostegunean, hilak 4, Port Bó hiru-kotea arituko da; ostiralean, hilak 5, La Vella Lola bikotea igoko da oholtzara eta, igandean, hilak 7, Rierako Mariners laukotea.



Ereaga hondartzak ere doako bi kontzertu hartuko ditu, 22:00etan hasita. Ostiralean, hilak 12, Chambaok, Getxo Folk jaialdian ere errepikatzen denak, sustraiak arnasten eta, aldi berean, horizonte berriak esploratzen dituen folk bat ekarriko du agertoki honetara. Bere proposamena flamenkoak Mediterraneoan eta munduko soinuekin topo egiten duen bidaia da. Larunbatean, hilak 13, Muerdo, Pascual Kantero kantari, konpositore eta olerkari murtziarren alter egoa izango da, mugarik gabeko proposamen mestizoa aurkeztuko duena.



IRAILAK 4 OSTEGUNA

Habanera jaialdia. 20:00etan, Muxikebarrin, Port Bó (Catalunya). 3€. Abo-
noa: 7€.

Erakusketa. Algortako batzokiko taberna, Antzeza-leak-eko bazkideek egindako akuarelak. Hilaren 30era arte.

Getxo Kulturaren tailerrak. Aurrematrikula. Informazioa Kultur Etxetan eta online: <https://labur.eus/dg1vbixf>

Mendi-irteera. Inskripzioa zabalik. Picos de Europa eta Kantauriko Mendikateko Peña Vieja (2.617 m) eta Coriscao (2.234 m) mendietarako irteera, irailaren 19tik 21era. Izena emateko: <https://etorkizunamt.com/>. Antolatzaile: Etorkizuna Mendi Taldea.

IRAILAK 5 OSTIRALA

Habanera jaialdia. 20:00etan, Muxikebarrin, La Vella Lola (Catalunya). 3€.

IRAILAK 6 LARUNBATA

Kontzertua. 20:00etan, Muxikebarrin, Bilbao Orkestra Sinfonikoaren emanaldia. 8€.

Antzeztutako bisitak. Portu Zaharra bere sustraietatik. Irteera: 11:00etan, Ereagako Turismoko bulegotik. 6€ (12 urtetik beherakoak doan). Info: <https://labur.eus/uzdx86>

Boleibol txapelketa. Ereagako hondartzan, 16:00etatik 20:00etara, 18 urtetik gorakoentzat, amateur mailan. Inskripzioak <https://labur.eus/arr843us> helbidean. 7 euro pertsonako. Antolatzailea: Mondragon Unibertsitateko Ikasleen Elkarte.

IRAILAK 7 IGANDEA

Habanera jaialdia. 20:00etan, Muxikebarrin, Mariners de Riera (Catalunya). 3€.

IRAILAK 8 ASTELEHENA

Hitzaldia. 19:00h, Romo Kultur Etxean, "Hay personas en la calle. ¿Hay políticas de acogida?". Hizlari: Asier Arpide Etxano (Psikologian lizentziatua Deustuko Unibertsitateko Masterra Psikologia juridikoan). Antolatzaile: Sinope kultur elkarte. <https://sinopeblog.wordpress.com/>

IRAILAK 10 ASTEAZKENA

Getxo Folk. Ordaintzeko saioa. 20:00etan, Muxikebarrin, Xabier Zeberio & Andrés Isasi Musika Eskola. 8€. Abo-
noa: 80€.

Liburu aurkezpena. 19:00etan, Algortako Kultur Etxean (Villamonte) María Vega González Aransayk "Viajar es invertir en felicidad" bere poema-liburua aurkeztuko du.

Kultur aisia unibertsitatean. Helduentzako kultura ikastaroak. 2025-2026 ikasturterako. Informazioa Kultur Etxetan eta online: <https://labur.eus/otqfakmq>

IRAILAK 11 OSTEGUNA

Getxo Folk. Ordaintzeko saioa. 20:00etan, Muxikebarrin, Estrella Morente. 25€.

IRAILAK 12 OSTIRALA

Getxo Folk. Areetako Geltokiko plazan. 13:00etan La West Bluegrass Band eta 18:30ean Erromintxelak. Doan. **Ordaintzeko saioa.** 20:00etan, Muxikebarrin, Capercaillie. 18€. **Hondartzan.** 22:00etan, Ereagan, Chambao. Doan.

IRAILAK 13 LARUNBATA

Getxo Folk. Areetako Geltokiko plazan. 11:00-14:00 eta 15:00-18:00, ludoteka musikala. 13:00etan Hutsun txalaparta eta 18:30ean Ene Kantak. Doan. **Ordaintzeko saioa.** 20:00etan, Muxikebarrin, Carminho. 18€. **Hondartzan.** 22:00etan, Ereagan, Muerdo. Doan.

Ipuin kontaketa. Storytime. 11:00etan, Algortako Kultur Etxean (Villamonte), "Gina Ginger & Charle Chives" (ingelesez). 3-7 urte. Izena emateko: getxo@kidsandus.es / algorta@kidsandus.es

Antzeztutako bisitak. Portu Zaharra bere sustraietatik. Irteera: 11:00etan, Ereagako Turismoko bulegotik. 6€ (12 urtetik beherakoak doan). Info: <https://labur.eus/uzdx86>

IRAILAK 14 IGANDEA

Getxo Folk. Areetako Geltokiko plazan. 11:00-14:00, ludoteka musikala. 13:00etan Sensei Music Ensemble eta 18:30ean Deira Band. Doan. **Ordaintzeko saioa.** 20:00etan, Muxikebarrin, Benito Lertundiren omenez (sarrerak agortuta).



Maximo Aguirre eta kale Nagusia, ingurune gizatiarragoa, seguruagoa eta irisgarriagoa

Maximo Aguirrek, bere Bulebar berdearekin, eta kale Nagusiak, Areetan, irudi berri eta oso bat dute, joan den abuztuaren erdialdean bi kaleak urbanizatzeko obrak amaitu ondoren. Bi jarduera horiek Europako *NextGenerationEU* funtsekin finantzatu dira gehienbat, eta mugikortasun jasangarriari, irisgarritasuna hobetzeari, plataforma bakarraren bidez trafikoa baretzeari, bidegorrien sarea handitzeari eta oinezkoentzako eta txirrindularientzako

ko segurtasun handiagoari laguntzen diete; izan ere, azken horientzat, espazioak berreskuratu dira. Azken batean, bi kaleetan hiri-ingurune gizatiarragoa, seguruagoa eta irisgarriagoa sortu da.

Maximo Aguirreko bulebarran zuhaitzak eta berdegunea berritu dira, eta, erdiguneko beste espazio batzuetan bezala, oinezkoek eta txirrindulariek ibilgailuen gainetik lehentasuna duten eremu lagunkoia osatu da. Bideak

bi aparkaleku-zerrenda ditu.

Eduardo Coste eta Santa Ana kaleen arteko kale Nagusiko zatian, non lanen 2. eta azken fasea egin den, ibilgailuak ere ibil daitezke, aparkalekuak prestatu dira kalearen alde batean eta bestean, eta bidegorriari jarraitzea eman zaio. Gainera, zuhaitzak dituzten behin-behineko jardinerak batzuk jarri dira, eta neguan behin betiko zuhaitzak jarriko dira horien ordez.

Giro bikaina eta parte-hartze handia jaietan

Abuztuan amaitu ziren udalerriko udako jai nagusiak (San Ignazio, Romo eta Portu Zaharra), parte-hartze handiagatik, giro bikainagatik eta belaunaldi desberdinen arteko bizi-kidetza osasungarriagatik nabarmendu dira. Amaia Aguirre alkateak adierazi duenez, jai hauek ospakizun herrikoi, askotariko eta parte-hartzailearen adibide izan dira.

Eskerrak eman dizkie jai-

-batzordeak osatzen dituzten pertsonei, udaltzainei, udal-zerbitzuei, boluntarioei eta inplikaturako pertsona guztiei. "Jai horiek", esan du, "ez lirateke posible izango gure bizilagunen parte-hartzerik gabe, gogo biziz eta, kasu gehienetan, errespetaz parte hartu baitute". Izan ere, erregistratutako delitu kopurua 2024an baino %25 txikiagoa izan da. Datu horrek 2023an hasitako beheranzko joera berresten du.

LABURRAK

***Koloretako argiak hainbat arrazoirengatik.** Irailaren 9ko eta 10eko gauean Areetako kaia eta herriko igogailu publikoak laranjaz argiztatuko dira, Suizidioa prebenitzeko Nazioarteko Eguna izango dela eta. Bestalde, hilaren 18tik 22ra berdez argiztatuko dira, Portu Zaharrean DalecandELA Fest ospatzen den bitartean. Azkenik, irailaren 28an eta 29an berdez eta urdinez argiztatuko dira, Erretinaren Munduko Egunaren ospakizunagatik.

STAFF

Getxoberri eGetxoko Udaleko Komunikazio Sailak kaleratutako argitalpena da eta horretan udalari eta tokiko bizitza-erakundeetako albisteak eta informazioak agertzen dira astero.

Erredakzioa: Nekane Ardanza. Monika Rodrigo, Iñigo Olondo. Urgull kalea z.g., 4. Tel. 94 466 03 20. 48991 Getxo. e-posta: getxokoudalaprentsa@getxo.eus Arte arduradunak: Diseinu eta Komunikazioa Aulesti SL. Inprimaketa: Comeco Gráfico Norte, S.L.U. Banaketa: Joal Express, S.L. Gordailu legala: BI-388-87

Erredaktoreburua: Itziar Aguayo.



"Orient Expresseko hilketak"



Elíades Ochoa

Muxikebarrik 75 ikuskizun hartuko ditu urte amaierara arte

Muxikebarrik kultur programazio zabala hartuko du irailetik abendura bitartean, 75 ikuskizun bilduko dituena. Horrela, gure udalerrria Euskadiko laugarren eskaintza handiena da, hiru euskal hiriburuen atzetik. Urtarrilaren 4ra arte, publikoak antzerkia, zirkua, musika, dantza eta zinemas gozatu ahal izango du, haurrentzako eta familientzako proposamena eta Getxoko egutegian ezarritako beste hitzordu batzuk ahaztu gabe, hala nola *Ramiro Pinnilla* literatur saria edo *AixeGetxo!*. Horrek guztiak programazio askotarikoa eta kalitatezkoa osatzen du, kultur aniztasunaren alde egiten duena, eta ibilbide handiko konpainia eta artisten proiektuak eta gertuen dagoen sormen sek-

toreak garatutako ikuskizunak uztartzen dituena, Getxo Eszena Irekia deialdiaren barruan.

Irailan, Habanera eta Folk jaialdiez gain, musika eskaintzan Bilbao Orkestra Sinfonikoaren (hilaren 6an) eta Gorka Urbizuren (27) kontzertuak nabarmentzen dira, baita zirkua emanaldiak ere, Zirkuss (17, 18, 19) eta Rojo Telónekin (21). Hilaren 26, 27 eta 28an *Mikel Albisu* antzerki amateurren laugarren lehiaketa egingo da, eta Luisa Martín eta Olivia Molina (20) protagonista dituen *Malditos tacones* antzezlanari iritsiko da.

Urriaren 2tik 27ra, Getxo Eszena Arte Eszenikoen Jardunaldien 43. edizioa egingo da, eta, horretarako, 15 ikuskizun

programatu dira familia eta helduentzat, euskaraz eta gaztelaniaz, Euskal Herriko zein estatuko gainerako konpainien eskutik. Antzerkia, dantza, opera, musikalak, zirkua... Nexo Teatro, Logela Multimedia, Ékoma Teatro & Javier Liñera eta Cor de Teatre konpainien eskutik iritsiko dira, besteak beste. Muxikebarrik agertokia zapalduko duten artistetako batzuk Lucía Lacarra dantzaria, Carlos Olalla, Lola Herrera, Natalia Dicenta eta Emma Suárez aktoreak izango dira.

Urriaren 30etik azaroaren 2ra, Aste Korala ospatuko da Alemania, Japonia, Letonia eta Getxoko (Eskuz Esku) abesbatzen emanaldiek.

Azaroan, musika hitzordu nagusiak garai guztietako sonero kubatar ospetsuenetako batekin izango dira: Elíades Ochoa (hilak 8) eta Kerobia pop-rock talde nafarra (15). Xabier Solano eta Jon Garmendia *Txuria*"k *Bidasoatik haratago* ikuskizuna ekarriko dute, olerkiak, trikitixa eta gitarra (7). Etxeko txikientzat *Ekaitza* (16), *Olaiaren lorategia* (30) eta *Mute... eta hegan!* ikuskizunak programatu dira. (23).

Amaitzeko, abenduan, besteak beste, Biotz Alai abesbatzaren Gabonetako Kontzertua (20) eta *On Kixote* baletaren bertsio ezaunetako baten berrinterpretazioa izango dira, Getxoko dantza akademietako ikasleen eskutik (21ean).

Getxo Eszena Irekia programazioaren deialdi berria

Irailaren 29ra arte aurkeztu ahal izango dira Getxo Eszena Irekia programazio artistikoaren deialdiaren seigarren edizioan parte hartzeko proposamenak. Getxotarrek sustatutako edo egindako proiektu artistikoen erakusketa sustatzea eta laguntzea du helburu ekimen horrek. Hautatutako proiektuak 2026ko otsailetik 2027ko apirilera erakutsiko dira, eta 120.000 euro erabili dira horretarako.

Aurreko edizioan bezala, deialdia hiru modalitatetan antolatuko da. Lehenengoa sektoreko



West Bluegrass Band, 2025-2026an aukeratutako proiektua

profesionalei zuzenduta dago, pertsona juridikoak zein fisikoak izan. Bigarrena, irabazi asmorik gabeko kultur elkarten eta pertsona fisikoen kargurako proiektu ez-profesionalei buruzkoa; eta, azkenik, hirugarren kategoria udal erregistroan inskribatutako irabazi asmorik gabeko kultur elkarteek aurkeztutako proiektu soziokulturalei irekia engo da.

Deialdia antzerki- edo koreografia-proposamenetara, zinema-emanaldietara, musika-emanaldietara, bertsolaritzara, haurrentzako lanetara, umorezko ikuskizunetara, errezitaldietara edo antzerkoetara zabalik dago. Bi egun baino gutxiago irauten duten lehiaketa, ziklo edo jardunaldien proposamenak ere onartuko dira. Deialdiaren aurreko edizioan parte hartu ez dutenek lehentasuna izango dute.

Oinarriak www.getxo-kultura.eus/deialdiak helbidean kontsulta daitezke. Informazio gehiago: programazioa@getxo.eus.

Euskal lirikaren kontzertua BOSekin

Bilbao Orkestra Sinfonikoa (BOS) larunbat honetan, hilak 6, arituko da Muxikebarrik, 20:00etan. Euskal lirikatik ibilbidea egingo du Mikel Fernán-

dezen zuzendaritza pean eta Bilboko Koralelkaratearen, Lorea López sopranoaren eta Aitor Garitano tenorearen laguntzarekin. Sarrerak: 8 euro.



"Querida mía", andre gogorren eleberria

Sevillako Paqui Maqueda idazleak *Querida mía* eleberri epistolarra aurkeztu du Romo Kultur Etxean, 1936an Sevillako auzo ezagun bateko emakume talde bati ahotza ematen diona. Elkarrekin bizi dituzte Bigarren Errepublikaren etorrerako egun zalapartatsuak, uztailako estatu-kolpearen gertakari tragikoak eta horren ondoriozko Gerra Zibila. Emakume horien hitzek beren amets zapuztuak, erbestea, espetxea, absentiaren doluak, larritasuna eta eguneroko errepresioa islatzen dituzte, baina, era berean, adiskidetasunari eta maitasunari, zaintzari, elkartasunari, justiziarri eta duintasunari egindako kantu ederra dira.

400.000 euro inguru gizarte-arloko elkarteekin hitzarmenak egiteko

Hainbat arlotako pertsonen babesa eta integrazioa bultzatzeko asmoz, Udalak erabaki du aurtengo 400.000 euro inguru banatzea udalerriko lau elkarteren artean.

Pertsonalde elkarteak 182.776 euro jasoko ditu eta San Nikolas Zabalik elkarteak 127.967 euro, bi kasuetan, Gizarte Kohesioaren arloarekin lankidetzan, familia

sarerik gabeko gizarte bazterketako arriskuan dauden pertsonen artean emateko. Aurrera eraman beharreko ekintzak honako hauek izango dira: esku-hartze ibilbide pertsonalizatuak sendotzea, boluntariotzako tokiko sareari laguntzea, sare komunitarioaren trebakuntza bultzatzea eta lan egiten duten pertsonen kapital sozialaren garapena sustatzea, to-

paketa-esperientziak erraztuz.

Bestalde, Argia Fundazioak 45.000 euro jasoko ditu hurrengo jarduerak finantzatzeko: *Harremanak eta ahotsak*, buruko gaixotasunak dituzten pertsonentzako Gizarte Klubarekin, *Gabon partekatuetan* bazkari solidarioa eta gizarteratzeko tresna gisa erabiltzen den irratsaioa.

Azkenik, Getxoko Etorrkinak Plataforma Federazioak (FEPLIGUE) 42.000 euroko laguntza jasoko du, atzerritarren eta bertako noranzko biko integrazioa bultzatzeko, bizikidetzak baketsua sustatuz eta migratutako pertsonen beren premiei erantzuten saiatuz. Prestakuntza-tailerak, irteerak eta jarduerak eskainiko dituzte.

Ikastetxeetan gora egin du Adikzioak Prebenitzeko Udal Zerbitzuaren "Sarean" gizarte-sareei buruzko tailerretan parte hartzeak

Informazioaren eta komunikazioaren teknologien eta gizarte sareen erabilera osasungarria lantzen duten *Sarean* tailerretan parte hartzeak gora egiten jarraitu du 2024/2025 ikasturtean. Horiek sare sozialen ezaugarriei, ondorio positibo eta negatiboak eta balizko arriskuei (*grooming, cyberbullying, sexting, sextorsioa...*) buruz hausnartzeko aukera ematen dute, bai eta behar bezala erabiltzeko baliabideak lantzeko ere. Tailerrak udalerriko ikastetxe guztietan Udalak sustatzen duen Osasuna Sustatzeko eta Adikzioak Prebenitzeko programaren barruan kokatzen dira. Ikasturte honetan 6.388 ikasleek parte hartu dute egitasmo horretako tailer eta programetan. Horietatik, 13 ikastetxetako Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako 188 ikasgelatako 3.571 ikasle izan dira, eta 8 ikastetxetako DBHko eta Batxilergoko 122 ikasgelatako 2.817 ikasle.

Aurreko edizioetan bezala, lan-



dutako gaiak gaitasun pertsonal positiboak eskuratzearekin (autorregulazio emozionala, balioak...) eta substantzien, bideo-jokoen eta teknologia digitalen erabilera desegokiaren aurrean arriskuak prebenitzekoekin eta murriztearekin lotuta egon dira, baita adin bakoitzerako egokiak diren gaiekin ere, hala nola errespetua, adiskidetasuna, tolerantzia eta enpatia.

"Udalak gure ikasleen hezkuntzari eragiten dioten gaiak jorratzen dituen programa hau bultzatzen jarraituko du, betiere parte hartzen duten ikastetxetako irakasleen inplikazioarekin eta lankidetzarekin, oso modu positiboan eta konfiantzaz jasotzen baitituzte ikasgeletan ematen diren saioak eta ikuspegiak", nabarmendu du Carmen Díaz Gizarte Kohesiorako zinegotziak.

Sarean tailerrekin batera, adinaren arabera, ikasle gazteenek asertibitatea, ongizate integrala eta harreman afektibo-sexual osasuntsuak landu dituzte *Ni neu, zu zeu ipuin-kontalarien*, eta *Sentikutz eta Lagunekin baratzean + txotxongiloak* tailerren bidez. Helduenek bideo-jokoei, droga-mendetasunen prebenitzekoari, alkoholaren arriskuari, drogen arriskuari, *Adikzio aurretik zinemari*, apustuei eta online jokoei buruzko tailerretan parte hartzeko aukera izan dute.

Familientzako Eskola

Bestalde, 82 pertsonak parte hartu zuten 2024/2025 ikasturtean Familientzako Eskolaren prestakuntza-programaren 30 saioetan, eta horietatik 18 gai jorratu zituzten. Saioen erdia euskaraz izan zen eta beste erdia gaztelaniaz, lau online eta asistentzia handiena izan zuten saioak osasun mentalari buruzkoak izan ziren. Berritoki ere, emakumeen kopurua handiena izan da, %81, joan den ikasturtean.

Jabekuntzako tailer eta jardueretan izen-ematea zabalduko da

Irailaren 8tik 22ra zabalik egongo da Gurari Emakumeen Etxearen ikasturte berriaren emakumeen jabekuntzarako egingo diren hainbat tailer eta jardueretan izena emateko epea. Eraldaketa sozialeko bideratutako prozesuen erreferentziatzeko, ikaskuntzako eta sustapeneko gunea da Gurari.

Iraupen desberdineko ikastaro eta tailerrak eskainiko dituzte (aurritiaz inskripzioa egin behar da eta parte-hartzaile bakoitzak gehenez hiru ikastaro aukera ditzake), hala nola zoru pelbikoa indartzea, Emakume migratzaileen topaketak eta autodefentsa feminista gaiei buruzkoak.

Horrez gain, herritarrentzako jarduerak irekiak izango dira: *Encuentros de mujeres migradas* tailerretan eta Gu ere bagara erakusketa eta liburuaren aurkezpena, besteak beste.

Formularioa online bidez (www.getxo.eus/eu/igualdad) egitea gomendatzen da edo bestela Gurarin (Telletxe eta Benturillena kaleen artean), astelehenetik ostiralera (10:30-13:30 eta 16:00-20:30h); edo HABetan (aurretiko hitzorduekin, tel.: 944 660 000). Informazioa: 944 660 138.



Ikastaro eta jarduerak 60 urtetik gorakoentzat

Burua suspertzeko, zaletasunak mantentzeko eta sustatzeko, eta gizarte-isolamendua prebenitzeko, irailaren 5etik 18ra bitartean zabalik egongo da 60 urtetik gorako pertsonentzako 2025/2026 ikasturteko tailer eta jardueretarako izenematea. Zahartze aktiboko udal-programaren barruan kokatuta, eta batzuk beste zenbait erekunderen laguntzarekin, jarduerak Romo Kultur Etxean eta Urgull Zentroan izango dira.

Eskainitako jardueren artean hurrengoak izango dira: Kafea beste pertsona batzuekin, doluan elkarri laguntzea, oroimena lantzea Gurutze Gorriarekin, xakea, mintzapraktika, Smartphone, Crochet, errezetak, Zineadin zinema zikloa, dantzak, buru estimulazioa eta ordenagailuaren erabilerari buruzkoak.

Informazioa eta inskripzioak +60

Dinamizazio Zerbitzuan, Romo Kultur Etxeko hirugarren solairuan, astelehenetik ostiralera 9:30etik 13:30era, eta astearte eta ostegunetan, 16:30etik 18:30era, edo 94 466 00 22 telefono zenbakiaren eta mas60gehiago@getxo.eus helbide elektronikoren bitartez.



Milioi bat euro Fadurako belar naturaleko futbol zelaia hobetzeko, bertan Arenas Clubek jokatzeko aldera RFEFko 1. mailara igo ondoren

Getxo Kirolakeko atletismo eta errugbiko harmailen eraikin berria finantzatzeko indarrean dauden konpromiso-kredituak aldatzea onartu zuen aho batez Udaltzaren uztailan, milioi bat euro liberatzeko Fadurako belar naturaleko futbol-zelaia hobetze aldera. Bertan jokatu du Arenas Clubek urtariletik aurrera, RFEFko 1. mailara igo ondoren.



Harmailen eta atletismoaren eta errugbiaren eraikin berrirako konpromiso-kredituak, 3 milioi euro guztira, honela geratuko dira: 2026an 100.000 euro erabiliko dira; 2027an, milioi erdi euro; eta 2028an, 2.400.000 euro. Aldaketak ez du harmailen obra arriskuan jartzen eta milioi bat euro liberatzeko aukera ematen du, Fadurako futbol zelaia egokitzeko. Gogoratu, Federazioaren eskaera da belar naturaleko zelai batean jokatzeko, eta Gobelako zelaiak belar artifizialekoak dira.

EH-Bildu eta Elkarrekin Podemos alderdiek adierazi zuten, Gobelako zelaiak birmoldatzeak oso kos-

tu handia du eta, gainera, Fadurako belar naturaleko zelaiak baino askoz gehiago erabiltzen du oinarritako futbolak. PPK, bestalde, Gobelako erreformaren aldeko apustua egin zuen eta "Arenas taldeari iruzur egitea bere zelaiak egokitzeko zela esateagatik" leporatu zion gobernuari. Udal Gobernuak adierazi zuenez, "PP gezurretan ari da, klubarekin harreman ona dugulako eta uneoro jakin duelako eta dakielako nola jokatzeko ari den. Bi aukera zeuden: Fadurako zelaiak egokitzeko edo Gobelako zelaiak eraberritzea. Azkenik, lehenengoaren alde egin zen hurrengo hiru arrazoirengatik: Federazioak urtariletan jokatzeko

eskatzen duen epea betetzea ahalbidetzen du, ez du eraginik izango beste klub batzuek Gobelan egiten dituzten entrenamenduetan, eta aukera tekniko eta ekonomiko bideragarria da. Gure betebeharra da klubei euren lorpenetan laguntzea eta beti lan egin dugu federazioen eskakizunetara egokitzeko".

Moziok

Mozioren atalean, EH-Bilduk planteatutako mozio bat onartu zen, seguraski hilabete honetan Andra Mariko kiroldegian jarriko dituzten bi paretak erabiliz eskalada ikastaroen proiektu pilotu bat abian jartzeko. Alvaro González Kiroletako

zinegotziak adierazi zuenez, bi hormak Eusko Jaurlaritzako Kirol Zuzendaritzak laga ditu, eta diseinua abiadura-eskaladan oinarrituta dago, ez boulderrean edo zailtasun-eskaladan. "Hori garrantzitsua da", azpimarratu zuen, "erabilera eta prestakuntza-aukerak, neurri handi batean, ezaugarri teknikoaren arabera izango direlako. Horregatik uste dugu Getxo Kirolakeko teknikariek batoratu beharko dutela egitura horietan segurtasunez eta zentzu pedagogikoz egin daitekeen eskalada mota".

Azkenik, jendearen galde-eskeen txandan honako hauek eskatu zituzten: zuhaitzen Txurrukako kaitxo lorategien, eta Getxoko beste parke eta berdegune batzuen garbitasun eta mantentze handiagoa; ordena publikoaren jarraipena jai-bezperetan Miramarreko begiratoia bezalako eremuetan; etxebizitza duina etxerik gabeko udalerriko gazte migratzaileentzat, baita jarra arrazistak saihesteko kanpainak ere, eta Algortako Egunsentia Haurreskolako gurasoek antzemanda hainbat gabeziari irtenbidea.

Zabalik da inskripzioa Getxo Kirolak-en Aukeran programan

Getxo Kirolak-ek Aukeran zerbitzu berrian parte hartzeko izen-emateak ireki ditu irailean eta kirol jarduera bat baino gehiago konbinatu eta zein klasetara joan aukeratu nahi duten abonatuak zuzenduta dago. Zerbitzua urrian hasiko da eta bi modalitatetan dago eskuragarri: *Aukeran* (45,60 euro hilean), 14 urtetik gorakoentzat, eta *Aukeran Plus* (57 euro hilean), 18 urtetik gorakoentzat. *Aukeran Plus*-i dagokionez, besteak beste, fitness-muskulazioko gimnasioak, indoor zikloko eskolak, asteko masterclass bat, ordu erdiko eskola espres bat, eskola birtualak eta indoor zuzendutako eta mantentze-igeriketa talde bat

erabiltzeko aukera jasotzen du. *Aukeran* zerbitzuak, bestalde, jarduera beretsuak erreserbatzeko aukera emango du, indoor eskola zuzendutako izan ezik (horiek 2 ordu lehenago bakarrik erreserbatu ahal izango dira). Gainera, Fadurako eta Gobelako kiroldegietan antolatzen diren 500 ikastaro baino gehiagotan plaza libreak daude oraindik. Nobedade gisa, Gobelan boxeoko ikastaroak eta gazteentzako entrenamendu funtzionaleko ikastaroak eskainiko dira. Informazioa eta eta inskripzioak: Getxo Kirolak-en webgunera edo Fadura eta Gobelako jendearen arretarako bulegoetan.

Nara Selas haur igerilaria, Espainiako txapelkun bikoitza

Getxo IW taldeko igerilari gaztea, Nara Selas, 14 urteko Espainiako txapelkun bikoitza da, 50 eta 100 metroko bularreko probetan irabazi baitzuen, uztailaren amaieran Ciudad Realen egin zen Txapelketan. Bere taldekideak, Maddi Aroak, zilarrezko domina lortu zuen tximeleta estiloko 50 metroko proban, baita haurren kategorian berean ere. Bi igerilariak podiumetik ehunen gutxira geratu ziren emakumezkoen 4x100 estiloetako eta 4x100 estilo mistoko errelebo probetan, non, azkenik, laugarrenak izan ziren. Getxo IWko nesken taldea bederatzigarren sailkatu zen 105 klubaren artean.




Sissel Acasuso gaztea munduko txapelketa Vaurien klasean

Sissel Acasuso Marítimo del Abra (RCMA-RSC) Klubeko estropadariak belako Vaurien klaseko Munduko Txapelketa eskuratu zuen, gazte mailan, Jorge Campos kantabriarrarekin batera. Txapelketa uztailan jokatu zen Italiako Bracciano lakuan, non seigarren postua ere lortu zuten sailkapen absolutuan. Gainera, lehentxeago, Acasuso hirugarren izan zen Italiako Txapelketan, non estropadari onena izan zen gazteen mailan.



Izadi Ruiz Monge Patinaje Artistikoko Europako Txapelketan da

Izadi Ruiz Monge patinatzaile getxotarra Triester (Italia) joan da Europako Patinaje Artistikoko Txapelketan parte hartzera, gazteen kategorian; hilaren 13ra arte jokatzeko da txapelketa. Izadik Europako txapelketa honetarako txartela lortu zuen Txurruinagako eta Fuengirolako estatuko azken txapelketetan txapelkunorde izan ondoren, libre eta dance modalitateetan, hurrenez hurren, txapelketa berean sari bikoitza lortu duen lehen euskalduna izanik.



Udal talde politikoaren iritzia



ENTZUN, ESKARIAK BETETZEKO



Bai, berriro entzun nahi izan ditugu Getxoko bizilagunen kezak edota premiak, noiz eta une honetan, lege-gintzaldia hasi eta bi urte igaro ondoren. Ohiko gogobetetze-inkestaz baliatu gara horiek jasotzeko, eta horren arabera, etxebizitza eta segurtasuna dira getxotarrentzako interes handiena duten gaiak.

Inkesta zabala eta irmoa izan da, eta horren bidez, Getxo bizitzeko... eta etxean sentitzeko leku gisa hartu da. Getxon bizi garenok oso nota ona eman diogu gure herriari, zehazki ia 7,6 jarri diogu, bertan bizitzeko lekutzat aztertzen badugu.

Herritarrek azpimarratutako lehen-tasunak argi daude: etxebizitza, se-

gurtasuna, garbiketa, aparkalekua eta berdeguneak. EAJ-PNVren lan-ardatzak izan dira eta izango dira datozen urteetan ere, Getxoko bizi-kalitatea hobetzen jarraitzeko. Horretan ari gara, etxebizitzaren arloa areagotzeko ekimenetan sakontzen jarraituko dugu, batez ere, gazteei eta egoera zaurgarrietan dauden pertso-nei dagokienez, bai eta gure kaleen segurtasunari eta kaleen, parkeen eta lorategien egoeran bikaintasuna bilatzeari dagokienez ere.

Nabarmendu behar da oso balorazio positiboa izan dutela Getxoko kultura-, kirol- eta hezkuntza-eskaintzak eta garraio publikoak. Hala ere, mugikortasunean eta trafikoaren antolamenduan hobetzen jarraitu behar

dugula badakigu.

Erakundeen arteko lana eta EAJ-PNVren konpromisoa aurrera doaz iristen ari diren bizilagunei dagokienez, planteatutakoari erantzuteko. Segurtasuna eta etxebizitza lehen-tasuna dira getxotarrentzat, baita udal gobernuarentzat ere. Hilabete gutxiren buruan, 180 etxebizitza baino gehiago alokairuan izango dira, batez ere gure gazteentzat.

EAJ-PNVk, Getxoko Alkatetzaren buru dela, azpimarratu du azterketa honek aukera ematen digula herritarren benetako beharrei erantzuteko entzun, lehenetsi eta jardun ahal izateko.

Konpromiso horiek betetzen ditugu.



IKASTURTE POLITIKO BERRIAN SEGURTASUNA LEHENTASUNEN ARTEAN DAGO

Uda amaitu da dagoeneko eta ikasturte politiko berriari ekingo diogu Getxoko Udalean. Herritarren konfiantzari esker, **legegintzaldiaren erdialdean**, ezinbesteko zeregina betetzeko konpromisoari eusten jarraitzen diogu. Gure konpromisoa argia da oraindik ere: **irmo eta gertutik** lan egitea getxotarren premiazat jotzen dutenari erantzuteko.

Hala ere, komeni da gogoratzea, udako hilabeteetan jardura politikoak behera egin badu ere, delinkuentziak bere horretan jarraitu duela. Horren

adibide dira **edukiontzia erre** izana eta Ereagako **hondartzan lapurretak** egon izana. Ildo horretan, Udalak bete izan balu **gure hondartzetan takillak** jartzearen proposamena, **2025eko aurrekontuetan** adostu zen bezala, arazo hori neurri handi batean arinduko zen eta, horrela, horrelako egoerak saihestu ahal izango ziren.

Horregatik, **gure kaleetako segurtasuna** izango da gure lehen-tasun nagusietako bat, udalerriko bizi-kalitatea hobetzen lagunduko duten beste neurri batzuekin batera.



ehbildu

IKASTURTE BERRIRAKO PREST!



Ikasturte politiko berria hasiko dugu hemen Getxon hainbat erronkarekin: HAPOn behin betiko onarpena, Iru-rak Bat jauregia modu irregularrean eraistegatik espedientea berriro hasiko da, itsasadar azpiko tunelaren obrak udaberriari hasiko direla aurreikusitako (eta horrek Artatzako parkea suntsituko luke eta eragin larria izango luke Antigu Golfeko auzokide eta Artaza-Romo Institutuan), eta abar.

EAJ eta PSEren Udal Gobernuak uneoro PPrekin akordioak bilatzen dituen arren, EH Bildutik lanean jarraituko

dugu Getxoko arazo nagusiei aurre egiteko eta alternatiba progresista bat eraikitzeke: etxebizitza duinak, larrialdi klimatikoari aurre egitea, ingurumena babestea, udal kudeaketa hobetzea (Getxobusa behingoz martxan jartzea, arrapalen adar jotzeari konponbidea ematea eta abar).

Azkenik, Palestinan Israelek indarrean dituen politika genozidak salatzen jarraituko dugu, eta getxoztarrei dei egiten diegu asteburu honetan bertan antolatu diren mobilizazioetan parte hartzeko.



GETXOKO KOMUNITATEA EHUNTZEKO PRESTAKUNTZA-ESKAINZA ZABALA



BIDE TXARREAN

Urtero bezala, Udaleko Gizarte Kohesio Arloak (arlotan PSE-EEK kudeatzen du) herritar guztien eskura jarriko du ikastaro eta tailerrez osatutako programazio osoa. Hilabete honetan irekiko da 60 urtetik gorako pertsonei zuzendutako jardueretan izena emateko epea. Jardura horiek bultzatu egiten dute sozializazioa, loturak sortzea eta nahi ez den bakardadea prebenitzea. Estimulazio kognitiboa, xakea

eta trebetasun digitalak (smartphone eta ordenagailuak erabiltzea) lantzeko tailerrak nabarmen dira, ikaskuntza zein ongizate emozionalera bideratutak.

Era berean, Gurari Getxoko Emakumeen Etxean ahaldundutako eta eraldaketa sozialera bideratutako prozesuak bultzatzeko tailerrak eskainiko dira, hala nola zoru pelbikoa indartzea, irakurketa feministaren kluba edo indar-

keria matxistak eta kontsumoa, beste askoren artean. Gizarte-kohesioak, ohi bezala, gazteentzako programazio espezifikoa eta mendekotasun-egoeran dauden pertsonen zaintzaileei laguntzeko tailerrak ere eskainiko ditu. Eskaintza horrek guztiak kirol- eta kultura-programazioarekin bat egingo du, eta parte hartzeko eta ongizaterako ibilbide integrala sustatzen du getxotar guztientzat.

Uda amaitu da dagoeneko eta legealdiaren erdialdera iritsi gara udal inkesta berriaren datuekin. Jasotako informazioak ez du inolharritu: inkesta bete dutenen % 40k uste du Getxok okerrera egin duela. 2023an, % 29k pentsatzen zuen hori. Udalerriko arazo nagusia etxebizitza izaten jarraitzen du. EAJ-PSE gobernuak (PPren babesarekin) agindu du HAPo konponduko duela, baina emaitza ez da egokia izan eta herritarrek 4 puntuko nota eman diote. Beti bezala, Podemosek jarraituko du gobernuaren akatsak salatu eta Getxo hobeto erakitzeke beste aukera batzuk proposatzen.